



## José María de la Sota Guimón, Abokatutzaren Euskal Kontseiluko koordinatzaile orokorra

*“Gero eta masifikazio gehiago daukagula-  
eta, nolabaiteko kontzientziazio efektua  
sortu da Zuzenbideko ikasleengan”*

**José María de la Sota Guimón** abokatua, Bilbon 1957an jaioa, erakunde anitzetako kide izana da: Bizkaiko Abokatuen Elkargoko Batzordeko diputatua, Abokatutzaren Euskal Kontseiluko sortzaileetarikoa bat, “Pedro Ibarretxe” Praktika Juridikoko Eskolako zuzendari ohia, Abokatutzaren Euskal Kontseiluko Koordinatzaile orokorra, Europako Abokatu Elkargoen Kontseiluko delegazio espainiarreko kide, eta baita erakunde bereko Batzorde Deontologikoko eta Adituen Batzordeko kide ere.

### **Euskal Autonomia Erkidegoko abokatutzaren argazkia**

Duela lau urte inguru, José M<sup>a</sup> de la Sota Guimón-ek koordinatu eta Alfonso Unceta Satrústegui-k zuzendutako taldeak ikerketa bat egin zuen abokatutzaren Euskal Kontseiluaren ekimenez, lanbide honek Euskal Autonomia Erkidegoan bizi duen egoera zein den ikusi eta neurriak hartzeko asmoz.

Aipatu ikerketak alderdi desberdin ugaritatik aztertu du abokatutzaren egitura; hala nola, zein den banaketa lurraldearen arabera, adinaren arabera, ikasketak gauzatutako unibertsitatearen arabera, sexuaren arabera, kolegiazio dataren arabera, etab.

Bigarren zati batean, profesionalak beraiek lanbidearekin zerikusia daukaten gaiei buruz daukaten ikuspegi subjektiboa ematen da aditzera: abokatutzaz, Abokatu Elkargoaz, trebakuntzaz, espezializazioaz, Europako erronkaz, etab.

Ikerketaren bukaeran, ondorio orokorrak ezagutarazten dira, bertan abokatutzaren egituraren oinarritzko ezaugarriak agertzen direlarik: masifikazioa, gaztetasuna, eskaintza zentralizatua, bateratasun eza, etab.


### **Ondorio orokorrak**

#### **Masifikazioa**

- Azken urteotan jende berri asko hartu du euskal abokatutzak, eta ondorioz, Euskal

Autonomia Erkidegoan (EAEn) bizi eta lan egiten duten abokatuak kopurua osoa handia da, gehiegizkoa ziur aski. Kontuan hartu behar da abokatuak %41ak baino gehiagok 4 urte edo gutxiago daramatzala lanean. Datuen arabera, sartuberrien tasa mantendu egiten da; beraz, gero eta masifikazio gehiago daukagu.

- b) Ez dirudi egoerak aldatzera egingo duenik, epe laburrean ez behintzat, Deustu, Donostia eta Leioako zentruetako lizentziatuen kopurua mantentzen edo igotzen ari baita.
- c) Masifikazioa, lanbidearen egitura ikertutakoan argi nabaritzeaz gain, EAEko abokatuak kezka nagusia ere bada.




### Gaztetasuna

- a) EAEn bizi diren abokatuak %34ak 30 urte baino gutxiago ditu, eta %73ak 40 baino gutxiago.
- b) Abokatuak hainbeste jende sartzearen zioetako bat, Zuzenbide lizentziaturak beste irtenbide profesional gutxi eskaintzen dituela da.
- c) Lanbidean aritu ahal izateko orain arte beharrezkoa ez zen trebakuntza praktikoa galdatuko lukeen arauetaren bat ezartzearen beldurra ere eragin du jendea Abokatu Elkargoetara sartzera.
- d) Garrantzitsua da emakume gazteek azken urteotan abokatuak duten presentzia. Gizonezkoak baino askoz ere gehiago sartzen ari dira, eskaintzako postu zentraletan lan egiteko zailtasunak dituzten arren.


### ABOKATUEN BANAKETA LURRALDE HISTORIKOKA

LURRALDE HIST.	ABOKATUAK	
	Zenbat	%
Bizkaia	2816	59,2
Gipuzkoa	1392	29,3
Araba	550	11,5
EAE	4758	100

### Bizkaian kolegiatutako banaketa eskualdeka



### Gipuzkoako Elkargoan kolegiatutako banaketa eskualdeka



### ABOKATUEN BANAKETA KOLEGIAZIO DATAREN ARABERA

LURRALDE HIST.	KOLEGIAZIO AITZINATASUNA EHUNEKOTAN				
	4 urte edo -	5-19 urte	20-34 urte	35-49 urte	50-64 urte
Bizkaia	44,3	46,1	6,7	2,5	0,5
Gipuzkoa	35,4	49,5	10,6	4,1	0,4
Araba	43,1	46,0	8,4	2,4	0,2
EAE	41,6	47	8	3	0,4

### Eskaintza zentralizatua

- a) Zentralizatorik nabarmenena Bizkaia eta Arabakoa da. Aipatzekoa da Bilbon dagoen abokatu dentsitatea.
- b) Zenbait lekutan gaitzeskaintza ematen da. Duela urte gutxi batzuk baino askoz ere abokatu gehiago ari dira lanean; populazioa, ostera, jaitsi egin da EAEn, eta ez da eskariaren inkrementua justifikatuko lukeen jardura ekonomikoaren handitzerik eman.

EAE n mantendu egin da gatazken kopurua 1991tik 1995era bitartean, epe horretan bikoiztu egin delarik abokatuen kopurua.

- c) Eskaintza atomizatu egin da, ohiko espezialitateetan kontzentratu delako.
- d) Abokatu generalistak direlakoak gazteenenak dira gehienbat, batez ere espezializazioa bezeroak bereganatzen diren heinean ematen delako, eta bereganatze horrek denbora bat behar du. Oso pasante gutxi egoteak eta abokatu gazteen izaera generalistak nolabait kolokan jar dezakete eskaintzaren kalitatea. Praktika Juridikoko Eskolak dira arazo larri hau zertxobait arintzen duten bakarrak.
- e) Abokatzua ez da gaur egungo gizarte eta ekonomiara egokitu; eta gainera, bere jarduera profesionaleko arloak galtzeko joera du, arloko beste lanbide batzuek bereganatu dituztelarik.
- f) Benetan deigarria da abokatzua jarduera berrietan ez sartu izana, berez berari dagozkionak izanik: Zuzenbide Komunitarioa, Ingurugiro Zuzenbidea... Espezializaziootako eskaria handitu egin den arren, antza denez abokatuak ez dira behar horiei erantzuteaz arduratzen ari. Esan genezake abokatzuak abandonatu egin dituela bere ohiko eremuak, eta ez dela berrietan behar adina murgildu.
- g) Ez da erraza abokatu bulegoetan baino lanean ari ez diren abokatuen zenbatekoa zehaztea; aldiz, baieztatu daitekeena da egoera horretan dauden gehienak gazteak direla. Adinean aurrera egin ahala, enpresa publiko eta pribatuen nahiz irakaskuntzan sartuagoak daudela ikusten da; 40 urtetik gorakoak %70ak beste lehen edo bigarren mailako dedikazioaren bat dauka abokatzuatzat at.

## Bateratasunik eza

- a) Bulego kolektiboak askotan gastuak elkarbanatzeko jartzeak, nahiz pertsona bakarreko hainbeste bulego egoteak, praktika indibidualizatuegia dela adierazten dute.
- b) Badaude errealitatea horrelakoa izatea eragiten duten zenbait faktore; bulego kolektibo eta diziplinartekoen araudi egokirik ez egotea, adibidez. Gabezia hauek zuzenduz eta beharrezko trebakuntza eskainiz, antolaketa maila hobetu egingo litzatekeela dirudi, eta denbora berriekin bateragarriagoak

liratekeen elkartze moduak bilatu, honela auzipetuari eraginkortasun eta zerbitzu hobea eskaintzeko, beti ere abokatuaren eta bezeroaren arteko harreman hurrenekoetako konfidantza ahaztu gabe.

## Trebakuntza

- a) Euskal abokatzuak unibertsitateko trebakuntzaz duen iritzia oso eskasa da. Praktika Juridikoko Eskolei buruz egiten duen balioespina zertxobait hobea bada ere, ez da beharko lukeen mailara iristen. Trebakuntza eskasa, abokatuak beren lanbidearekiko daukaten kezka nagusienetarikoa bat dugu.
- b) Unibertsitateak beregain hartu behar du Zuzenbide ikasketak egitera doazen ikasleak irtenbide profesionalez eta abokatzuan jarduteko zailtasunez informatzeko ardura. Era berean, ikasketen planak eta graduondoko trebakuntza egokitu egin behar ditu abokatzuak eta beste lanbide klasikoek (epaile, fiskal, notario...) XXI. mendearen ateetan dituzten beharretara.
- c) Praktika Juridikoko Eskolen zeregina, juristak abokatu bilakatzea da. Horretarako, lanbidea aske egikaritzen ari diren abokatuen praktikez eta abokatzuarekin lotura estua duten beste profesionalen lankidetzaz baliatu ohi dira (epaileak, idazkari judizialak, fiskalak, prokuradoreak...). Gizartearen eskariari ezin zaio prozesu judizialean bakarrik oinarritutako trebakuntza praktikoko batekin erantzun; aholkularitza eta negoziazioa bezalako arloak ere landu beharko dira, eta eskaria eskaintza baino handiagoa den eremu haietan trebakuntza bultzatu. Era berean, juridiko ez diren gaiei ere arreta eskaini beharko zaie (ofimatika, hizkuntzak, kontabilitatea...), abokatuaren prestakuntza erabatekoa izan dadin.
- d) Aski frogatuta gelditu da trebatu beharra dagoela. Hala eta guztiz ere, nolabaiteko kontraesana ematen da eskari honen eta kolektiboaren jokabidearen artean. Litekeena da trebakuntza eskaintzan gabeziak egotea, Elkargoek nahiz Praktika Juridikoko Eskolek aztertu eta zuzendu beharko litzuketanak.

## Espezializazioa

- a) Oro har garbi atzematen da espezializazio beharra. Elkargoetako



erakundeek adierazi behar dute joerak zeintzuk diren, ez baitirudi oso garbi dagoenik "norantz jo behar den", ziur aski benetako eskaria zein den ez jakitearen ondorioz.

- b) Eskari hori atzemateko ikerketak egin beharko lirateke, etorkizuneko espezialitateak zeintzuk diren zehaztu ahal izateko. Halaber, jarduera profesionaleko eremu berriak bete, horrela intrusismoari eta "lanbide paralelo"-en lehiakortasunari aurre egiteko.

## Ospea galtzea, Noraeza, Balioespen eskasa

- a) Lanbidea berbideratu egin behar da, horretarako funtsezkoa izanik Erakundeek (Euskal Kontseiluak eta Elkargoek) gidaritza hartzea.
- b) EAEko abokatuen artean orokortzen ari da lanbidea pixkanaka ospea galtzen ari denaren iritzia; aldi berean, lan egiteko moduan noraeza eta egoeraren balioespen kaskarra nabari dira, oro har poztasun maila baxua delarik.

---

## Lanbidearen eta bere berbideratzearen Plan Estrategikoa

### Planaren jatorria eta bere garapenerako eskuduntzak

# 1.

Nola sortu zen abokatutzaren Plan Estrategikoa egiteko asmoa?

Euskal Autonomia Erkidegoko abokatutzari buruz egindako txosten soziologiko baten ondorioak ikusirik. Kongresua, txosten horren ondorioak zirela-eta bildu zen; eta jardunaldi horiek egin baino urte bete lehenago, irtenbideak bilatzeari ekin genion. Praktika Juridikoko "Ibarretxe" Eskolak zeukan kezkatatik egin zen txosten hori, ikasleen masifikazioa zeukalako; etorkizunean jende horrekin guztiarekin zer gertatuko ote zen pentsatzen hasi ginen. Horretarako, lehenik eta behin zer garen ikusi beharko dugu, eta hortik abiatuz hasiko gara izan nahi dugunerantz neurri edo erabakiak hartzen.

Praktika Juridikoko Eskolako zuzendaria naizelako ari naiz Programa honetan lanean; 5 edo 6 urte daramatzat. Azterketa soziologikoa egin nuenean, Kontseiluari eman nion jakitera, eta honek erabaki zuen kongresu bat egin beharra zegoela. Aurtengo maiatzaren 9an, lanbidearen Plan Estrategiko bat egitea erabaki zuen, nire gain utziz berau landu eta koordinatzea, aditu talde batekin batera. Horrela sortu zen Plana, uztailaren bukaeran aurkeztu eta irailaren 9an onartu zena.

# 2.

Zein marko juridikotan txertatuko da Plana?

Euskal Abokatutzaren Estatutuan oinarritu gara. Estatutua, azken finean, etorkizunerako marko

juridiko bat da, Planean sartuko litzatekeena. Orain 1982ko Espainiar Abokatutzaren Estatutu Orokorrean atxikita gaude, baina gure ustez Autonomia Erkidegoan badauzkagu estatutu propio bat edukitzeko eskuduntzak. Elkargo Profesionalen Legea garatuz, Euskal Abokatutzaren Estatutu bat egin nahi dugu. Proiektua eskatuta dago jada. Etorkizuneko ekintza guztiek arauketa juridiko bat eta jarduteko modu arautu bat izatea ahalbideratuko duen marko juridikoa izango da funtsean, arlo bakoitzean aritzen lagunduko ligukena. Ezinbesteko tresna da marko juridikoa.

Bada Planean agertzen ez den beste tresna bat ere, teknologia berriei dagokiena, euskal abokatutzarentzako Intranet sarea ezartzeko. Jada hitzemandako Gobernuarekin, Euskaltelekin, etab.

# 3.

Ba al dago arauketa honen inolako aurrekaririk Estatu mailan?

Ez. Estatutu arauketa marko autonomikoan egitea erabaki dugu.

# 4.

Eskuduntza gatazkarik sortuko al da?

Ez. Elkargo Profesionalen arauketa Autonomia Erkidegoei transferituta dago eta Lege autonomikoa da; beraz, lanbide bakoitzeko kontseilu autonomikoak lege horretatik abiatuz arautu behar dira.

# 5.

Guztiz independenteak al zarete Plan hau gauzatzeko orduan, ala bada nolabaiteko

zortasunik Estatuko Administrazioarekiko, Erkidegokoarekiko, etab.?

Inoiz ez da guztiz independientea izaten. Gu Zuzenbide Publikoko erakunde bat gara, eta Planak Estatuaren laguntzak aurreikusten ditu; alegia, finantzaketa eta dirulaguntza guztietara joko dugula, Eusko Jaurlaritzarenetara bereziki, baina baita Estatuko Gobernuarenetara ere. Plan Estrategikoko erabakiak hartzeko irizpideei dagokienez, erabat autonomia eta askea da. Gertatzen dena da Euskal Kontseilua beste Kongresu espainiarrak baino lehenago ospatzen dela, eta batik bat Sevillan 99ko martxoan ospatuko den espainiar orokorra baino lehen. Hango txostenetako batek, "Lanbidearen jarduera eremua" du izenburutzat. Espainiar Kongresuak gai beretsuak aztertuko ditu, baina Euskal Kongresuak egin ondoren; beraz, hein handi bat jada exekutatuta daukagula joan nahiko genuke espainiar Kontseilura. Aitzindariak gara.

## Ekintza eremuak

### 6.

Zeintzuk dira Planean proposatu dituzuen oinarritzko ekintza eremuak?

Zehazki jarduerari dagokionez, Planak bi arlotan ekiteko asmoa du: etengabeko trebakuntzan eta trebakuntza okupazionalan. Honek ez du esan nahi trebakuntzaz bakarrik arduratuko garenik; baizik eta egoera den bezalakoa izanik, ezinbestekoa dela trebakuntzatik hastea, krisia bereziki masifikazioetatik sortu delako.

Sarrera masibo batzuk egon dira, ez beti bokazioz abokatutzara jo duen jendearena, baizik eta beren azken baliabidea zelako, guztia sartzen den eta denerako balio duen zuloa, eta zer egin ez dakiena abokatutzan sartzen da. Orduan, masifikatuez gain, ezaugarri hori daukan jende asko dagoela kontuan izanik, lanbidean leku bat nekez aurkituko dutenak, trebakuntza okupazionalako ekintza garrantzitsu bat aurreikusi dugu, bi norantzatan: ea gizarteak Zuzenbidean lizentziatuen zein behar daukan ikusi; eta hor oinarrituz, Zuzenbide lizentziaturaren osagarri diren arloetan trebatzea jendea, balio izango dutenak enpresa kalitateko departamentu, marketing, finantza, etab. erako (berez abokatutzaren lanbide tipikoak ez direnetarako); lan arlo horiek zeintzuk diren ikusitakoan, jendea haietara prestatu, lanerako bideratzea, eta enplegu antenak egiten jarraitzea.

Hori guztia, etengabeko trebakuntza okupazionalaren zati bat da, abokatutzaren %20-30aren bloke bat hartzeko, Zuzenbide lizentziaturako ekintza propioetan aritzen dena, baina ez abokatutzaren propioetan. Denok sartzen ez garelako jendea bota beharrean, EAEn gauden 5.500ok ikusi behar dugu barruan gaudenetako nork daukan beste irtenbide batzuk bilatzeko interesa.

Arlo jurikikoan daukaten *background*-a kontuan izanik, eta merkatura irteteko zein trebakuntza osagarri behar duten aztertuz, Zuzenbidean lizentziatu izatea abokatutzari lotuta dagoen merkatu honetan, eta beraz, gizartean abokatu hitzazatik ulertzen denera lotuta, Zuzenbide lizentziatura bat berez denetik oso urrun.

Etengabeko trebakuntza, betidanik izan da abokatutzaren arau etiko bat. Eta egia da abokatutza egunetik egunera birziklatzen dela. Baina oraingoan pauso bat gehiago eman nahi da. Ez da betebeharrak deontologikoa betetzera mugatzen; aitzitik, politika hedakorraren barruan, trebatu beharra eta gaurko egunera egokitu beharra daukagu. Funtsezkoa da bai eskuduntzak hobetzeko, bai irekita utzi ditugun beste arlo horiek berreskuratzeko, eta sortzen ari direnak geureganatzeko (Ingurugiro Zuzenbidea, Lehiaketa Zuzenbidea...), ez garelako horietaz arduratzen ari, besteak beste prestatuta ez gaudelako. Abokatutzan ari direnen lehiakortasuna hobetzea da kontua. Gu beste edozein bezain ongi trebatuta gaude, eta, gainera, kode etiko-deontologiko bat daukagu, trebakuntza plus bat eta printzipio batzuk gordetzea (segurtasuna, independentzia, sekretu profesionala, etab.) galdatzen dituenak, gizarteari kalitate hobea emateko, eta profesional baten ordezkari beste bat hautatzeko.

### 7.

Non aurki daitezke aipatutako lan iturri horiek?

Enpresan. Azken hamabost urteotan, enpresaren munduak ez du Zuzenbidean lizentziaturik hartu, lehen ohikoa zenean Euskadin behintzat Zuzenbide lizentziatura enpresarekin lotutako jardura askotarako trebakuntza egokia izatea. Azken urteetako teknifikazioaren ondorioz, enpresetan ari direnak ekonomistak, informatikoak, ingeniariak, etab. dira. Inori ez zaio bururatzen kalitate departamentuetarako Zuzenbidean lizentziatu bat kontratatzea; lehenago pentsatzen da ingeniari batengan, ekonomista batengan, edo baita soziologo batengan ere. Profil hori duten pertsonen interesaz konbentzitzeko ekintzak egin behar dira, Zuzenbideko lizentziatura batez gain graduondoko ikastaro batzuekin trebatuta daudenekiko interesa piz dadin (kalitatezkoak, informatikakoak, marketing, enpresen kudeaketa, etab.).

Denborarekin alboratu egin dira berez Zuzenbideari dagozkion jarduerak pila bat, bitarte horretan lanbide liberekin pixkanaka bereganatu egin dituztelarik. Esate baterako, aholkularitza gatazkara mugatu da bereziki, baztertuta utziz aholkularitza prebentiboa, fiskala, kontratazio arloko aholkularitza prebentiboa, nominak... etab., garrantzia gutxiago eman izan dielako.

Inor ez da abokatuarekin hitz egitera joaten negozio juridiko bilakatuko den ekintza bat daukanean eskuartean. Inor ez da abokatuarengana joaten ezkondu egin behar



duenean, ezkontza horren ondorioak zeintzuk izango diren jakiteko. Uneotan izugarritzko diru pila mugitzen da ezkontza baten inguruan, eta harrigarria da halako garrantzia daukan negozio juridiko familiar bat egiterakoan ez gastatzea 10, 15 edo 25 mila pezeta profesional batekin eseri eta zenbait alderdi aztertzeke: ezkontzaren eraentzak zein ondorio dituen, zer gerta daitekeen ondasunekin, etxebizitzaren eskurapenarekin, etab. Dibortzio kasuetan jotzen da abokatuarengana, etxebizitza eta seme-alabengatik elkarri joka hasten direnean. Etxe bat erosterakoan ere ez dago prebentziorik. Zuzenean notarioarengana joan ohi da jendea; joan eta sinatu besterik ez du egiten, etxe bat erosteak zenbat inplikazio juridiko dauzkan pentsatu gabe, hasi fiskaletatik eta familiarretaraino, senargaiak erosi ote duen, sendiak lagundu ote duen... Inori ez zaio etorkizuneko gatazkak ekiditeko hori dokumentatzea komeni dela bururatzen. Aholkularitza prebentiboa ez da gatazka mota hau ekiditeko bakarrik, baizik eta baita erosketara hobe bat egiteko, kreditu hobe bat lortzeko edota pertsonaren inguruabarren arabera egokiago bat, etab.

la jende guztiak egiten duen beste gauza bat lan kontratua da, eta ez da ohikoa abokatua kontsultatzera joatea. Ez du zehazki enpresak eskaintzen dituen termino kontraktualak aldatzeko asmoarekin kontsultatu behar, baina bai jakiteko non sartuta dagoen, kontratu horren ondorioak zeintzuk diren, etorkizuna nolakoa izango den, etab. Aholkularitza prebentibo hori desagertu egin da.

## 8.

Nork eskaini beharko lituzke trebakuntza ikastaroak?

Kontseiluak eta Elkargoek eskainiko dituzte, abokatuarentzat etengabeko trebakuntza egoteaz arduratzea bi hauen betebeharrak estatutario eta deontologikoa delako. Abokatutzaren erakundeek funtziorik nagusienetarikoa bat da.

## 9.

Ba al dago unibertsitateekin, graduondoko ikastaroekin... bat egiteko asmorik?

Bai. Eta utzi egin behar diogu *intramuros* izateari. Ekintzaren puntu garrantzitsu bat gizarteari irekitzean datza (elkarteei, sindikatuari, enpresa taldeei, GKEi...), gizartearengandik ere ikasteko eta abokatutzaren zerbitzuak behar dituzten agenteekin batera gauzatzeko trebakuntza plan hauek. Zein da asmoa? Lehenik eta behin, guk jakitea zer den eskatzen dutena; eta bestetik, zer egiteko prest gauden jakin dezatela, arloak elkarrekin aztertzen joan gaitezten.

## 10.

Nori zuzenduta dago Plana?

Planak hiru xede talde dauzka (lehenengoa, lanean ari diren abokatuena; bigarrena, Praktika Juridikoko Eskoletako ikasleena; eta hirugarrena, Zuzenbidean lizentziatuena eta Zuzenbide ikasleena). Ekintza okupazionala ez dago lanean diharduten abokatuak zuzendua, noski. Bigarren zenbakidun talde horri bideratua dago trebakuntza profesionala; izan ere, hein handi bat abokatutzan sartuko da, eta bestea atera egingo da ohiko abokatutzaren jardueratik. Hirugarren multzoan, Zuzenbidean lizentziatuek ez dute zertan kolegiatuta egon behar eta gure fakultateetako azken mailatan ikasten ari direnak daude, UNEDekoak, etab. Beraz, ekintza ez dadila gaudenontzat bakarrik izan, baizik eta baita inguruan daudenontzat eta amaitzean daudenontzat ere, masifikazio gehiago sor ez dadin. Jendeak hasieratik jakin dezala zein jarduera dituen aukeran, ez duelarik zertan Abokatu Elkargora jo eta abokatu bezala inskribatu beharrik.

“Hobetzen” Planaren xedea, eskuduntzak hobetzea da; alegia, hemendik urte batzuetara orain gaudenon portzentaia egongo ez bada ere, asko izaten darraigu. Eta, dena den, egia da abokatutzak kontaktua galdu duela gizarteko errealitatearekin; gizartean bertan galdu egin du konfidantza, eta hori berreskuratu egin behar da, ekintzak zabaldu ahal izateko.

## 11.

Teknologia berriei dagokienez, ba al duzue trebakuntza ikastaroen bitartez abokatuengana zuzentzeko asmorik?

Intranet sare bat ezartzeak –berehala egingo da– gainera oso garrantzitsua den alderdi bat dauka: abokatuak, beren bulegoetatik, Gobernuaren zerbitzu informatikoekin jarri ahal izango dira harremanetan, une horretan bertan jakin ahal izango dutelarik zein egoeratan dauden beren ekintza judizialak, jurisprudentzia lokala ikusi ahal izango dute, eta EAEko epaileek dauzkaten beste emakida guztiak izango dituzte.

Teknologia berrien ikuspuntutik eta, bereziki, komunikazio arloan, EAEko abokatu guztiak erabat antolatuta egotea nahi dugu, segurtasuna eta kalitatea bermatuko dituen sare propio batekin, abokatu bati profesionalki interesatzen zaizkion zerbitzu guztiak eskainiz. Hau guztia teknologia horiei esker lor daiteke: posta elektronikoa jakinarazpenetarako, abokatuaren eta bezeroaren arteko komunikaziorako, abokatuaren artekorako, abokatuaren eta Elkargoaren artekorako, etab. Lehen pausoa, teknologia berriei buruz trebatzea izango litzateke, nola erabiltzen diren jakiteko, eta hurrengoa, Txertatze Planean jada aurreikusia dagoena, bulegotiko trebakuntza: hitzaldietara joatea, bideohitzaldia berehalakoan jartzea, hiru Abokatu

Elkargoen ahaleginak bateratzea EAEko abokatu guztiok joan ahal izateko hitzaldi bakar batera, bertan egonik nahiz tresna informatikoen bitartez, etab.

Asko lantzen ari gara unibertsitate birtuala ere, Hegoameriketara dagoen trebakuntza batez ere. Donostiako Informatika Fakultatearekin harremanetan gabilta hau guztia garatzeko.

Pizgarria zein da? Bada, masan kontratatzen dugunez, salneurriak hobeak eta bermedunak direla. Derrigortasunaz, aldiz, zera esan: erabilerak berak esango duela. Teknologia hau ez daukan bulegoa, liburutegirik ez daukana bezalakoa izango da; egun osoan zehar Elkargoko liburutegira joan-etorrian ibili beharko du. Datu baseak, abokatuzarentzako informazio interesgarriak dauzkan beste link batzuk, Internet... ere izango dira eskura.



## 12.

Zuen inkestako emaitzetan ikusten denez, abokatu gehienak nahiko eszeptikoak dira Zuzenbide europarraren erronkarekiko.

Ez beraiek bakarrik; europar abokatutza bera ere bai. Uste dut 15. Zuzendaritza Orokorra dela Zuzenbide Komunitarioa Europar Batasunean txertatzeaz arduratzen dena, eta ikaragarriko ahaleginak egin behar ditu, oraindik zuzenbide atzeritar bat bailitza ikusten baita Zuzenbide Komunitarioa. Ez dago Zuzenbide lokal eta propio bat denaren kontzientziarik. Oso apartekoa da epaitegietan europar Zuzenbideari nahiz epaiei alegazioak egitea. Ez da ohikoa, baina aldaketa egun batetik bestera etorriko da. Arazoa ez da euskal abokatuzarena bakarrik, oro har europar abokatuzarena baizik. Zailtasunak dauzka gaur oso erabilgarriak diren tresnak hemendik urte gutxira zein punturaino izango diren beharrezko ikusteko.

## 13.

Trebakuntza Plan honen azterketarekin bukatzeko, ezer azpimarratu nahiko al zenuke (ukitu ez dugun alderdiren bat, behar bada)?

Trebakuntza Planak, azken batean, lanbidea berbideratzeko abioak dira. Ez dugu ahaztu behar ez dela lanean trebatzera mugatzen; horrez gain gizartera atera behar dugu, benetako lehiakide izan, eta ongi trebatuta dagoen gazte piloari irtenbide bat eman. Itsua behar du egon gu lanbide gazte bat garelako ikusi nahi ez duenak, epe laburrean ziur aski indartsua eta lehiakorra izango dena, merkatuan egon eta presionatzen ari dena, eta gizarteko errealitatera egokitze iraultza egingo duena.

Asmoa da erakundeak eta abokatuzaren gobernu organuak aldaketa honetaz arduratzea da, gizartean razionalki, bitarteko gehiagorekin eta nolabaiteko gidaritzarekin sartzeko. Ezinbestekoa da elkargoen gidaritza.

## Lanbidearen berregituraketa gizartean

## 14.

Kongresuko ondorioetako batek dio abokatuak gizartea informatu behar dutela, bai egiten dutenaz, bai egin dezaketenaz.

Hala da, bai, informazio plan baten bitartez. Planeko oso zati garrantzitsu bat, barne eta kanpo informazioari dagokiona da. Jendearengana iritsi nahi dugu. Kongresuko arrakastarik handienetarikoa bat, egin genuen komunikazio plan bat izan zen, gizartean oihartzun handia izan zuena. Kontua ez da gizartea informatzea bakarrik, hau da, abokatuok zer garen eta zer egin dezakegun adieraztea, baizik eta gizartea bera defendatua senti dadila, abokatuarengana joan beharrik gabe. Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeen kasuan, adibidez, jende guztiak eman du bere iritzia, baina abokatutzak ez. Eta arraroa da abokatutzak ezer esateko moduko intereseko gairen bat astero-astero ez sortzea da.

## 15.

Ez dirudi abokatuaren oso funtzio ohikoa denik zer egin behar den esatea, nola egin behar den baizik.

Ez diot abokatuaren funtzioa denik, baina bai abokatuzarena. Abokatutzak legeak egiteko prozesuan parte hartu behar du; defentsaren defentsa izan behar du. Abokatutzak ez du gero berak konponduko duen gatazka noiz sortuko zain egon behar; aitzitik, gatazka egongo dela ohartarazi behar du, eta konpontzeko bitartekoak ezarri.

Horrek ez du korporatibismoa egongo denik esan nahi; gizartean gure ahotsa kolektibo gisa edukitzea baizik. Biei komeni zaie: bai gizarteari, bai abokatutzari.

## 16.

Zer egin dezakezue Elkargotik Abokatuen artean dagoen gehiegizko indibidualismoari aurre egiteko? Nola sustatu bulegoak gastuak elkarbanatzera mugatuko ez dituen elkarlan bat?

Ez dakit hor zein punturaino den abokatuaren errudun. Marko juridikoa ezinbestekoa da. Abokatutza espreski kanporatzen dute fiskalitate, diru laguntza, enpresen sorkuntza, kontrataziorako laguntza, etab.eko programa guztietan. Zenbait dekretutan, "ez dira abokatuen bulegoak onatzen" ohartxo ere agertzen da. Gizarteak berak ez direna bezala tratatzen ditu abokatu bulegoak. Enpresa txiki, ertain edo handi izaera ez duten enteak direla dirudi, eta ondorioz, ezin dute direna bezala funtzionatu ahal izateko abantaila, onura eta marko juridiko egokietara atxiki. Zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak dira. Kendu egin behar dira oztopo horiek guztiak. Bulegoak, direna bezala tratatu behar dira. Enpresa txiki edo ertainak badira, orduan zerbitzuak eskaintzeko elkarlan zehatz bat onartzen zaion beste edozein sozietatek daukan marko legal edo juridiko-fiskala eta abantailak eduki beharko dituzte.

Arazo bat dago: independentziarena. Deontologiak berak mugatu egiten du abokatuak norekin elkar daitezkeen. Arazoak daude diziplina anitzeko taldeak egiteko, baina konpongarriak dira nolana ere. Independentziaren printzipioa urratzen ez den bitartean, ez dago abokatu ez beste profesionalen osaturiko diziplina anitzeko taldeak egotea eragotziko duen inolako ziorik. Egin beharrekoa zera da: lehenik, hesiak kentzea; eta ondoren, abokatuari egitura egokiak zeintzuk diren esatea. Etengabeko trebakuntza osatzen duen lehen ekintzetako bat, elkartzeko eredu desberdinei buruzko jardunaldi batzuk dira, batzuen eta besteen abantailak eta eragozpenak aztertzeke.

## 17.

Nahiko ikuspegi iluna eman duzu Zuzenbidean lizentziatu berriak direnen aukerei dagokienez...

Ongi aski dakigu Deustuko eta Ibaetako fakultateetatik urtean 2.000 lizentziatu inguru ateratzen direla. Kopuru hori pixkanaka jaisten ari bada ere, birjarpen tasak ikaragarriak dira. Dena den, ikerketa hauek egin eta informatzen aritu izanak, nolabaiteko kontzientziazio efektua sortu du Zuzenbideko azken urteetako ikasleengan.

## 18.

Zuen ikerketa soziologikotik ondorioztatzen denez, lizentziatu gazte gehienak ez daude batere pozik jaso duten trebakuntzarekin.

Hori da ikusten dudana; besteak beste, txosten soziologikoan hala adierazi dutelako. Ez daude pozik Praktika Juridikoko Eskolan jasotzen duten trebakuntzarekin, baina unibertsitateko trebakuntzari buruz duten iritzia askoz ere okerragoa da.

## 19.

Zer egin daiteke Elkargoaren ikuspuntutik hori aldatzeko?

Nik uste dut informazioa eman behar dugula batez ere. Trebakuntza txarra da, informatu gabe daudenentzat den heinean. Trebatzen ari dira, baina ez dakite zertarako. Zuzenbidea ikastera doan jendeak ez daki Abokatutza aritzea zer den. Jende guztiak telefilme amerikarreko estereotipoa dauka buruan, eta daukaguna hori dela uste du. Seme-alabak karreran sartzen dituzten gurasoek ere ez dakite abokatu izatea zer den.

## 20.

Zein hutsune dauka irakaskuntzak? Non sakondu beharko litzateke?

Zaila egiten zait hori esatea; ni graduondoko trebakuntzaren arduraduna naiz, lanbidean sartzearena. Praktika Juridikoko Eskolako zuzendari gisa egin dudana azken ekintza garrantzitsua, Elkargoko Praktika Juridikoko Eskola eta Deustuko Unibertsitatekoa bat egitea izan da. Lehen nolabaiteko lehiakortasuna zegoen; orain, ordea, bat eginda daude, helburu berdinak dituzte-eta.

Harrokeria eta barregarria iruditzen zait unibertsitateko trebakuntza zehaztu behar dutenak praktika ezagutzen dugun abokatuok izan behar dugula esatea. Egin behar duguna da konexio puntuak bilatzea. Azken batean, unibertsitateki datorren jendea jasotzea da egiten duguna.

Agian, unibertsitateak guztiz alboratzen dituen arloetan sakondu beharko genuke: ingelesa, informatika eta kontabilitate ikastaroetan, esaterako. Guztiz oinarritzekoak dira abokatutza behar bezala jarduteko.

